

HASIERA ORDUA: 19:07

BUKAERA ORDUA: 20:15

PARTE HARTZAILEAK:

15 pertsona (4 emakume, 11 gizon)

ORDEZKARI POLITIKOAK:

Ametz Meatza (EHBILDU)

Jon Ander Altube (EHBILDU)

Juanma Ibarretxe (EAJ-PNV)

TEKNIKARIAK

Almudena Fernandez (Arkitektoa)

Laura Castresana (Arkitekto teknikoa)

Joseba Solaun (Obren arduraduna)

Herritarra: asfaltatzeei buruz adierazi du, Amesako eraikinen zonaldean egin den gauza bakarra dela lau zulo kentzea, arrakalak daudela eta ura garajeetan sartzen dela. Gainera, adierazi du sasiak espaloiak hartzen dituztela eta garbitzeko kontratatu den enpresak moztu beharko lituzkeela.

Jonan: erantzun du hain zuzen batzarra baino lehenago egon direla Amesako auzokideekin eta arazoa ezagutzen dutela.

Herritarra: galdetu du puntu horretan dauden arkitektura-oztopoei buruz.

Jonan: erantzun du eremu osorako ekintza bat pentsatu beharra dagoela, ezin direla arazo puntualak konpontzen ibili. (erantzunez herritar batek igogailu bat ipintzeko baimenari buruzko egindako galderari) Baimena emateko, proiektua aurkeztu behar da, eta ez da oraindik ezer aurkeztu. Finka-administratzailea Udalkarekin harremanetan dago eta beharrezko pausoak ematen ari dira proiektua aurkezten denean beharrezko lizentzia eman dadin. Udalak aztertu egingo du arazoa eta aukerak ikusiko dira.

Sasiei dagokienez, garbitu egin dira, baina lursail pribatu batean badaude, Udalak egin dezakeena da jabeari galdegitea garbitu dezala.

Herritarra: adierazi du sinadurak ere bildu direla jabe batek eremua garbitzeko.

Jonan: errepikatu du Udalak egikaritze agindua eman dezakeela garbitzera behartzeko, sinadurak bidli beharri gabe ere.

Herritarra: azaldu du auzoan urratuak egiten dizkietela auto askori giltzekin eta udaltzainek ez dutela ezer egiten hori ekiditeko.

Jonan: erantzun du udaltzainak auzoan zehar ere ibiltzen direla eta, izan ere, isunak jarri dituztela. Aipatu du ez dagoela aparkaleku pribaturik, ezta hori eragozteko baliabiderik.

Herritarra: galdetu egin du disuasio-aparkalekua ote den han dagoena.

Jonan: azaldu du disuasio-aparkaleku batek ez duela esan nahi zainduta dagoenik ezta ibilgailuek kalterik jasango ez dutela bermatzen denik, autoak erdigunera sartzeko balio duela.

Herritarra: esan du aparkalekua dagoen tokian ez dela erabiltzen, ez delako erabilgarria.

Jonan: galdetu die berataratutakoei uste ote duten aparkalekua ez dela beharrezkoa.

Herritarra: erantzun du lapurretak egon direla, ez dela erabilgarria eta ez dela segurua. Eraikinaren etxabea garaje gisa prestatzeko iradokitzen du, Udalarenak direlako.

Jonan: zuzentzeko esan du Udalak lonja bat baino ez duela etxabe horietan.

Herritarra: azaldu du etxeen albotik erreka eta mendia oso zikin dagoela. Udan Udalak garbiketa egin zuen beheko aldean, baina goiko aldean zikin jarraitzen du, sasiz eta belarrez betea, eta horrek arriskua dakar. Bere ustez, hori jabetza partikularra da eta horrexegatik ez da garbitu.

Jonan: errepikatu du partikularren lurrak direnean Udalak jabea behartu dezakeela garbitzera.

Herritarra: esan du Ametsako etxeen ondoan, dena oso zikin dagoela, baina Aldundiaren lurrak direla.

Jonan: erantzun du kasu horretan Aldundiarekin hitz egingo dela.

Herritarra: eskertzen du Landaluzeko 25.ean bizikleten aparkalekua instalatu izana, uste duelako konponbide ona dela eta beste leku batzuetan egiteko moduko eredua. Bestalde, bizi den eraikinean bizitako egoera azaldu du, tratau txarren kasu bat. Considera que el problema no se soluciona con la intervención de la Ertzaintza y el juzgado, sino que es necesario que se involucre el Ayuntamiento a través de Bienestar Social, Osakidetza...

Azkenik, azaldu du bizi den eraikinaren atzeko partean, txakurren jabeek ez dituztela jasotzen gorozkiak eta, batez ere udan, usaina jasqanezina dela.

Jonan: Azaldu du herritarrak esan bezalaxe, Udalak kanpainak egin dituela Zuin aldizkariaren bidez arazoaren berri emateko, baina ez duela uste informazio faltaren kontua denik, baizik eta kontzientziazio faltarena. Txakurrentzako parkeak egiteko proiektua dago, aske ibiltzeko aukera izan dezaten. 3 eremu gaituko dira, lehenengoa Latorroko hilerriaren ondoan, 24 orduz erabilgarri egongo dena, itxitura eta guzti. Beste eremu bat jarriko da Arrañon, hori ere itxiturarekin eta 24 orduz. Lamuzako parkean eremu bate gongo da, zeinetan ordutegi zehatz batean (gauez, goizeko 10 edo 11etara arte) txakurrek aske egoteko aukera izan dezaten. Horrek ez du esan nahi eremu horietan ez direnik txakurren gorozkiak jaso behar. Gainera, dagoeneko isunak ipintzen ari dira txakurrak aske izateagatik.

Bizikleten aparkalekuari dagokionez, esan du beste leku batzuetan ipini direla eta ildo beretik jarraituko dutela.

Amets: Azaldu duenez, udal webgunean plano bat jarriko da aprakalekuen kokapenen berri emateko. Erasoen gaiari dagokionez, azaldu du Udalak bi protokolo dituela tratatu txarren kasuetarako: barne-protokoloa eta instituzioen artekoa. Horietan parte hartzen duten Udalak, Laudioko polizia-etxeak, Amurrioko epaitegiak eta Osakidetzak. Erakundeetako batek kasu bat jasotzen badu, mekanismoak aktibatzen dira Udalak laguntza juridikoa, psikologikoa eta bestelakoak eskaini diezazakion. Barne-protokoloan Berdintasun, Gizarte-ongizate eta Udaltzaingo Arloak daude inplikatur. Ez du zertan aurretik salaketarik egon, Udalak berdin ematen du laguntza eta zerbitzu horietako batzuk Aldundiarekin lankidetzan ematen dira. Gauza bera gertatzen da tartean adingabeak badaude.

Jonan: erantsi du herritar batek deitze hutsarekin, diskreziorik handienarekin aktibatzen dela protokoloa eta, bestela, udaletxera etortzeko aukera ere badagoela. Ametsek lehenago esan duen bezala, azpimarratu du garrantzitsua dela ez itxarotea ezer larririk gertatu arte.

Herritarra: azaldu du auzoan bi zebrabide txarto daudela, bata goiko aldean, edukiontziak dauden aldean, eta bestea beheko aldean, 21. eta 23. atarien artean. Iradoki du aparkatzeko leku bat kentzeko espalora zuzenean zeharkatzeko, aparkatutako autoen artean igaro beharrik gabe.

Laura: azaldu du konplikatur dela, ezin direlako edukiontziak gertuko zonalde batera eraman, ez delako udal jabetzako lurra.

Herritarra: galdetu du posible izango ote litzatekeen zebrabidea mugitzea.

Laura: erantzun du ezinezkoa dela, baina ezin duela arrazoi zehatza gogoratu.

Herritarra: Azaldu duenez, Letonako etxearen aurreko zatia asko erabiltzen da eta galdetzen du ea zati hori asfaltatu litekeen. Jonan: erantzun du partikularra dela. Gogora ekarri du Udala kasu batzuetan zenbait lurretan sartzeko aukera izan duen arren espalora ateratzen zena garbitzeko, ezin dutela lur pribatuan esku hartu. Edonola ere, esan du konfirmatu egingo dutela pribatua dela.

Herritarra: esan du lotu gabeko txakurren gaia jorratu egin dela dagoeneko. Eskatu du 38. eta 48. atarien arteko zatian bizikletaz ibiltzea debekatzeko seinale bat ipintzeko, handik jende zahar ugari ibiltzen delako eta umeak zoroen moduan doaztelako.

Gainera, 46. zenbakiaren aurrean, hodia dagoen aldean, porlana bota zen puztuak sortzen zirelako, baina azkenean apurtu egin da eta porlan zitiz beteta dago.

Jonan: Bizikletaz ibiltzen diren umei dagokienez, esan du agian ez dela seinaleak jartzearen kontua. Proposatu du eurekin edo euren gurasoekin hitz egiteko, baina herritarrak esan du hori ez dela konponbidea.. Dice entonces que se mirará el tema.

Hodiari dagokionez, betekia konponduko da.

Herritarra: azaldu du Amesako garajeetako zati batean, hasiera batean, sartzen ari zen auto bat eta ateratzen ari zen bat aldi berean igaro zitezkeela. Orain, sartzeko zatia autoz Beteta dago. Marra horia margotu zen eta batzuetan errespetatzen da eta batzuetan ez. Egoeraren aurrean, eskatzen du bloke osoan margotzeko lerro horia, ez aparkatzeko han.

Amets: esan du zonalde horretan isunak jarri izan direla.

Herritarra: erantzun du hala ere aparkatzen jarraitzen dutela.

Herritarra: esan du auzoan bi zeharbide altxatu daudela. Zehazki, bihurgunean dagoena, altxatuegi dago, bortitzegia da.

Amets: azaldu du auzoa asfaltatzen denean, jauzia arintzen saiatuko direla.